

# HIZKUNTZA NORMALKUNTZA PROIEKTUA - 2018-2022

012053 IES Uni Eibar-Ermua BHI

2018-2022 epealdirako ikastetxe honek prestatu duen Hizkuntza Normalkuntzako Proiektu honek ikastetxearen Organo Gorenaren onespena duela aitortzen dut.

## EREMUEN GAINEKO HAUSNARKETA

<p>Justifikazioa</p>	<p>Gure ikastetxea 1998-99 ikasturtean sartu zen HNPn. Orduan ez geneukan A eredia besterik, eta erronka nagusia D eredia jartzea zen. 2000-2001 ikasturtean lortu genuen hori, eta euskarak bere lekua hartzen hasi zen gure ikastetxean. Denborarekin gure hizkuntzaren presentziak gora egin du, eta horrela gertatu da baita 2014-18 proiektua egin genuenetik gaur egun arte. Hala ere, aitortu behar pisu handia duela A ereduak oraindik gure ikastetxean, eta horrek eragina duela sortzen den giroan eta hizkuntza-ohituretan. Izan ere, batxilergoan 8 talde ditugu eta horietatik 4 A eredukoak; zikloetan 22 talde dira eta 13 dira A eredukoak. Aurreikusita dago, dena den, D ereduaren presentzia handiagoa LHn.</p> <p>Badago datu baikorrik baina. Indize orokorraren arabera, presentziak zein erabilerak gora egin dute eta bien arteko oreka handiagoa da, erabileraren presentzia baino txikiagoa den arren. Hona hemen datuak: 2014an presentzia % 53,62koa zen, eta erabilera % 40,95ekoa; 2018an lehena % 56,14koa da eta bigarrena % 46,16koa. Hobera egin dugu, bai, baina hurrengo urteetarako erronka erabileraren igoetzea litzateke, zalantzarik gabe.</p> <p>Ikastetxearen ezaugarriak dagokienez esan eremu berean bagoaude ere, hiru eraikin ezberdinetan egiten dugula lan eta eraikin bakoitzak bere harreman-sare propioa duela, eraikinen muga gainditzen duenik ( Informatika Saileko irakasleak batez ere) baden arren. Hori dela eta, irakasleen mintzagramak egiterakoan, hiru irakasle-talde egitea iruditu zitzaigun aproposena, harreman-sareak oinarri. Eta mintzagramen emaitzek erakusten digute, ereduak eredu, inguruneak ez ezik, norberaren ohiturak eta hautuak ere baldintzatzen dutela hizkuntzaren hautaketa.</p> <p>Mintzagramak erakutsi diguten beste datu bat da ikasleen eremua dela ahulena, eta horretan eragitea funtsezkoa dela.</p> <p>Ezin utzi aipatu gabe, Eibarko eskola-mapa berria dela eta, gure ikastetxea erabat aldatuko dela 2019-20 ikasturtean, batxilergoa bertatik desagertu, eta LH ikastetxea bihurtuko baita, eta ikastetxe berriak bere bide propioa egin beharko duela. Hortaz, lau urterako plan honen biziraupena eta eragina laburra izango da, eta gerora, baliagarria izan behar badu, moldaketak beharko ditu. Horregatik gure helburua datuak (horiek bai, erabil daitezke gero ere) ondo biltzea izan da, eta plana orokorra izango da, gero egokitzapenek lekua izan dezaten.</p>
<p>Eremu Instituzionala</p>	<p>Eremu honetan, gutxi bada ere, erabilerak gora egin du (% 43,78tik % 44,9ra), presentziak ere gora egin duelako % 52,75etik % 54,61era. Igoera ez da handia baina pixkana-pixkanaka presentziak eta erabilerak gorako joera dute eta bien arteko orekak ere bai.</p> <p>Zuzendaritzako kideak euskaldunak izatea komeni da, irakasle guztiak izaten baitituzte harremanak eurekin eta baita ikasleek ere eurretako batzuekin. Hau lortzea garrantzitsua da hizkuntza-ohiturak finkatzeko.</p> <p>Bestalde, esan behar da hizkuntzei dagokien irizpidea elebitasuna dela gure ikastetxean, eta, beraz, sortzen eta zabaltzen diren dokumentu gehienek irizpide hori jarraitzen dutela. D eredurako sortzen eta zabaltzen dena eukaraz soilik izatea izango da hemendik aurrera helburu behinena.</p>
<p>Eremuaren gaineko hausnarketa eta 4 urteko plangintzarako irizpideak</p>	<p>Jasotako datuen arabera, ikastetxeko ordenagailu ia guztien interfazea gaztelaniaz dago, eta, beraz, hori ere aldatzea komeni da.</p> <p>Lantokiko prestakuntzarako materiala euskarara egokitzen aritu dira LHkoak. Hurrengo pausua D ereduko ikasleek behintzat lan praktikak enpresetan euskaraz egitea izango litzateke.</p>
<p>Eskola kideen hizkuntzako prestakuntza eta erabilera</p>	<p>Orokorrean ezagutzak zein erabilerak gora egin du eta, inportanteagoa dena, erabileraren igoera izan da gehien igo dena, eta, gainera, bien arteko oreka ia erabatekoa da. Irakasleen arloak izan du gorakadirik handiena. Hona hemen datuak: 2014an presentzia % 42,05ekoa zen eta 2018an % 46,81ekoa da. Erabilera 2014an % 37,57koa zen eta 2018an % 47,03koa da. Argi dago erabilerak izan duela igoerarik handiena.</p> <p>Eremuka aztertuko ditugu datuak orain. Esan bezala, irakasleen ezagutzak zein erabilerak gora egin du nabarmen: ezagutzak % 69,19tik % 81,74ra, eta erabilerak % 39,04tik % 62,08ra. Honen zergatia datozen irakasle berri guztiak euskaldunak direla da. Eta arazoa, bistakoa denez, betikoa, ezagutza eta erabileraren arteko oreka falta. Hizkuntza-ohiturak aldatzea ez da lan erraza, eta horrek eta norberaren hautuak baldintzatzen dute, zalantzarik gabe, erabileraren. Aldaketa horiek lortzea litzateke erabileraren igoerarako gakoetako bat.</p> <p>Ikasleen eremuan ezagutza eta erabileraren arteko oreka handiagoa da, baina biak ere oso txikiak dira, eta behera egin dute, gainera. Gure ikastetxeko ezaugarrietako bat A ereduak duen pisua da, lehen esan bezala, eta, gainera, etapa bakoitzean bi urte baino ez dituzte egiten ikasleek. Horrek guztiak zaildu egiten du epe luzearako ekimenen antolatzea eta egituratzea. Hala ere, hori da daukagun ezinbesteko erronka.</p>
<p>Eremuaren gaineko hausnarketa eta 4 urteko plangintzarako irizpideak</p>	<p>Kontuan izanda ikasleen adina eta bi urte baino ez dituztela egiten gurean, gurasoen inplikazioa eta eragina txikia da, eta egia da ere euskaldunak gutxiago direla.</p>

Eremuaren gaineko hausnarketa eta 4 urteko plangintzarako irizpideak	Administrazio eta zerbitzuetako langileen artean erabilera altua (% 72) da, eta baita ezagutza (% 81,25) ere, etorri diren langile berriak euskaldunak baitira. Bien artean aldea dagoen arren, biak altuak dira, eta eremu honetan da erabilera handiena ez dagoelako erdaldunik.
Gelaz kanpoko jarduerak	Gelaz kanpoko jarduerari buruz esan behar da dagoeneko erakundeek ikastetxeei eskaintzen dien ia oro euskaraz dela, eta, beraz, horrek bermatzen duela presentzia, baina ez erabilera. Gure kezka nagusia ikasleen erabilera izanda, horrek ez du, hala ere, ikasleen erabilera ziurtatzen, euren arteko harremana ikastetxe barnekoa baita, hau da, gehienbat gaztelaniaz.  Azkenaldian, gainera, erakundeek, udalak eta herriko elkarteek antolatzen dituzten ekintza eta lehiaketetan gero eta murriztagoa da ikasleen partaidetza. Partaidetza hori lortzea ere, bada inguruko ikastetxe guztion erronka.
Eremuaren gaineko hausnarketa eta 4 urteko plangintzarako irizpideak	
Bestelako tresnak	Batxilergoko lehen mailako ikasleentzat prestatu genuen orain dela urte batzuk material berezia, euskararen egoeraz eta errealitateaz jabetu eta hausnarketa egiteko. Kurtso hasieran egiten dugu eta, erabileran eragina izan ez badu ere, kontzientzia piztea eta hazia ereitea du helburu, eta gerora baliagarria izatea.
Eremuen lehentasunen inguruko hausnarketa	Plangintzaren lehentasun nagusia ikasleen ezagutza eta erabilera handitzea da. Era berean, bada helburua ere beste eremuetan erabilera igotzea, eta ezagutza eta erabileraren arteko oreka handiagoa lortzea.

## 4 URTEKO PROIEKTUA

### 1. EREMU INSTITUZIONALA

#### 1.1. Ikastetxearen antolakuntza

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizioa			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Ikastetxeko eragile guztiei plan honen eta urtero egiten denaren berri ematea. Zuzendaritza Taldeko baten bat beti HNBN egotea. Zuzendaritza Taldeak plana betetzeko egin beharrekoan parte hartzea, bitartekoak ere jarriz, hala behar denean.	Zuzendaritza eta HNAT	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak		Betetze mailaren balorazioa, 7	✓	✓	✓	✓
Ordenagailuen interfaza aldatu, euskaraz izan dadila D ereduko ikasle eta irakasleentzat.	Zuzendaritza, Sailak eta HNAT	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % tan, %60		✓	✓	✓	✓
Ikastetxe barruko dokumentazioan euskararen erabilera lehenetsi, ahal den guztietan, eta sortzen diren dokumentu berrietan ere hala egin. Gehiengoa euskalduna denean bilerak euskaraz egin, eta D eredukoentzat den guztia euskaraz soilik sortu.	Zuzendaritza, Sailak eta HNAT	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak		Betetze mailaren balorazioa, 7	✓	✓	✓	✓
Ikastetxearen euskarazko eskaintza sendotu eta areagotu.	Zuzendaritza, Sailak eta HNAT	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % tan, %50		✓	✓	✓	✓

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					18-19	19-20	20-21	21-22
D ereduiko ikasle gehienek LPa euskaraz egin dezaten, horretarako aukera ematen duten enpresa guztiak identifikatu.	Zuzendaritza, LP arduradunak, Sailak eta HNATat	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % tan, %50		✓	✓	✓	✓

### 1.2. Normalkuntza sustatzeko erabakiak

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					18-19	19-20	20-21	21-22
HNBn beti zuzendaritzako kideren bat egotea.	Zuzendaritza	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak		Betetze mailaren balorazioa, 8	✓	✓	✓	✓
HNPko ekintzak aurrera eramateko behar diren bitarteko guztien bermea ziurtatzea.	Zuzendaritza	Antolaketa jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak		Betetze mailaren balorazioa, 9	✓	✓	✓	✓
Ikastetxeko dokumentu inportante guztietan HNP txertatu	Zuzendaritza	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak		Betetze mailaren balorazioa, 9	✓	✓	✓	✓

### 1.3. Ikastetxearen harremanetarako hizkuntza-irizpideak

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Aukera ematen dutenean, harremanak, dokumentazioa eta materiala euskaraz.	Zuzendaritza, HNAT eta LPko arduraduna	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak		Asebetetzearen balorazioa, 7	✓	✓	✓	✓
Zikloetako D ereduiko ikasleen lantokiko prestakuntza euskaraz denean, harremanetan euskararen erabilera lehenetsi eta euskara hutsez egin.	Zuzendaritza, LP arduradunak, Sailak eta HNATat	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak		Asebetetzearen balorazioa, 7	✓	✓	✓	✓

### 1.4. Eskola eta eragileen arteko elkar hartzea

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Eibarko Udaleko Euskara Zerbitzuak eta inguruko elkarteek antolatzen dituzten bileretan eta ekimenetan parte hartu.	HNATak eta ikastetxeko komunitate osoa	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak		Betetze mailaren balorazioa, 8	✓	✓	✓	✓
Harremanak euskaraz bakarrik izateko bidea ematen duten inguruko elkarte, komunikabide eta abarrekin euskaraz baino ez egin.	Ikastetxeko komunitate osoa eta HNATak	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak		Betetze mailaren balorazioa, 8	✓	✓	✓	✓

## 2. ESKOLAKO KIDEEN HIZKUNTZAZKO PRESTAKUNTZA ETA ERABILERA

### 2.1. Ikasleak

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Euskara eta euskal hiztun komunitatearen egoeraz eta ezaugarriez jabetu eta hausnartu.	HNAT, Sailak eta Zuzendaritza.	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak		Asebetetzearen balorazioa, 6	✓	✓	✓	✓
Ahozko komunikazio-gaitasuna hobetu erabileran eragiteko. Horretarako gelan ahozkoari toki gehiago eman, gaitasunak gora eginda, erabilerak ere gora egin dezakeelako.	Sailak	Hausnarketa jarduerak, Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak		Asebetetzearen balorazioa, 6	✓	✓	✓	✓
Bestalde, badugu helburu ere udalak eta herriko elkarteek antolatzen dituzten euskara sustatzeko herri mailako ekintzetan ikasleen partaidetza bultzatzea, azkenaldian honetan ere beherakada nabarmena da eta.	Zuzendaritza, Sailak eta HNAT	Hausnarketa jarduerak, Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak		Asebetetzearen balorazioa, 6	✓	✓	✓	✓
HNBn ikasle gehiago izatea, besteentzako eredu izan daitezten.	HNB	Hausnarketa jarduerak, Antolaketa jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak	Parte hartzeari dagokiona % tan, %60		✓	✓	✓	✓

### 2.2. Irakasleak

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Hobera nabarmen egin dugun arren, erabilerak ez du ezagutzak beste gora egin, eta, beraz, bien arteko oreka handiagoa lortzea izango litzateke helburua, egoera formal zein informaletan. Horretarako hizkuntza-ohiturak eta jarrerak aldatzen saiatu behar gara, ezagutza/gaitasuna ez baita arazo. Zikloetan D ereduak leku gehiago izateak, aurreikusita dagoen moduan, lagunduko du honetan.	Irakasleria eta Zuzendaritza	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak		Asebetetzearen balorazioa, 6	✓	✓	✓	✓

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Hizkuntza idatzian, aldiz, bermatua dago erabilera, ezagutza dagoeneko oso altua baita. Dena dela, irakasleriaren artean prestakuntza bultzatzea ere badugu helburu, ezagutzak gora egitean, erabilerak ere gora egingo duelakoan.	Irakasleria eta Zuzendaritza	Antolaketa jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak		Asebetetzearen balorazioa, 6	✓	✓	✓	✓
Ruskal komunikabidean eta euskal baliabide digitalak erabili ikasgeletako jardueretan, ikasleen erabilera esparrua zabaltzeko.	Irakasleria	Antolaketa jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak		Asebetetzearen balorazioa, 6	✓	✓	✓	✓
Sailak bildu, D ereduko ikasleek gaztelaniaz egiten digutenean nola jokatu adosteko, gero lotesle izango den dokumentu bat sortzeko, irakasle eta ikasle guztien artean zabalduko dena. Horrela irakasle guztien ardura izango da ikasleek euren artean euskaraz egitea. Bestalde, euskaraz egiten diguten ikasleen jokabidea goraipatu, eredutzat har ditzaten.	Zuzendaritza, irakasleria eta HNAT	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak		Asebetetzearen balorazioa, 6	✓	✓	✓	✓

### 2.3. Administrazio eta zerbitzuetako langileak

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Eremu honetan datuak oso onak izanik, gaur egun bezala, ahozko komunikazioa zein idatzizkoa euskaraz izan dadila bermatu.	idazkaritza eta zerbitzuetako beste langileak	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak		Asebetetzearen balorazioa, 8	✓	✓	✓	✓

### 2.4. Gurasoak

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					18-19	19-20	20-21	21-22

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Guraso euskaldunekin harremanak euskaraz bideratzea. Horretarako kurtso hasieran galdetuko zaie zein hizkuntzatan jaso nahi duten dokumentazioa. Bestalde, kontuan izan behar da gure ikasleen adina eta bi urte baino ez dutela egiten gurean; izan ere, gurasoekin dugun harremana txikia da, eta zaila da batzordean eta bestelakoetan inplikatzeko.	HNAT, tutoreak eta orientatzailea	Kurtso hasierako bilerak eta kurtsoan zehar izaten diren idatzizko zein ahozko harreman zuzenak. harreman zuzenak		Parte-hartzearen balorazioa, 6	✓	✓	✓	✓

### 3. GELAZ KANPOKO JARDUERAK

#### 3.1. Eskola eragile

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					18-19	19-20	20-21	21-22
A ereduak pisu handia izan arren, D ereduko ikasleak gero eta gehiago direnez, erabilera ere gero eta handiagoa izan beharko litzateke, baina, mintzagramak ziurtatu digutenez, hori ez da horrela. Hor dugu, beraz, erronka. Zer egin? Alde batetik, kanpoko elkarteek (EIE, Ikas2deak...) eskaintzen digutenaz baliatu, prestigiozko ereduak izan ditzaten.	HNAT eta ekintzen antolatzaileak	Hausnarketa jarduerak, Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak		Asebetetzearen balorazioa, 8	✓	✓	✓	✓
Ikaastetxeak eta ikasleek beraiek antolatzen dituzten ekimenak eta ospakizunak euskaraz garatu (hizkuntza informala lantzeko aukera) ahal den guztietan.	Zuzendaritza, Sailak eta HNAT	Hausnarketa jarduerak, Antolaketa jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak		Asebetetzearen balorazioa, 7	✓	✓	✓	✓

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denbormalizazioa			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Ikastetxeak eragitea, behar denean, kanpoko erakunde eta ekintzen kanpoko antolatzaileek ikastetxean gauzatzen dutena euskaraz izateko, D ereduko ikasleei zuzenduta daudenean.	Zuzendaritza, Sailak eta HNAT	Antolaketa jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak		Asebetetzearen balorazioa, 7	✓	✓	✓	✓
Euskal Txokoa sortu nahi duenak euskararekin eta euskal munduarekin zerikusia duen eta interesgarria iruditzen zaiona "eskegi" dezan.	Ikastetxeko komunitate osoa eta HNATak	Antolaketa jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak		Asebetetzearen balorazioa, 6	✓	✓	✓	✓

### 3.2. Elkarteak / erakundeak eragile

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denbormalizazioa			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Eibarko Udalak eta Eta kitto! elkarteak euskara sustatzeko antolatzen dituzten herri mailako ekimen eta lehiaketetan parte hartzea sustatu.	HNAT eta elkarteak	Antolaketa jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak		Asebetetzearen balorazioa, 7	✓	✓	✓	✓